

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2628

IRAGARKIA, Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendariarena; honen bidez, argitara ematen da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Agindua. Agindu horren bidez, hasierako onespena eman zaio Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko Garrantzi Komunitarioko 4 leku Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu, eta KBE horiek eta Urdaibaiko Itsasadarreko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) babesteko neurriak onartzen dituen Dekretuaren proiektuari.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Aginduaren bidez, hasierako onarpena eman zaio Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko Garrantzi Komunitarioko 4 leku Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu, eta KBE horiek eta Urdaibaiko Itsasadarreko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) babesteko neurriak onartzen dituen Dekretuaren proiektuari.

Beraz, dekretu-proiektuarekin, administrazioen eta ingurumena babesteko helburuak lortu nahi dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeen entzunaldiaren izapidea bete behar da, eta informazioa jendaurrean jartzeko hogeita hamar egun naturaleko epea ireki, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Aipatutako epean, dekretu-proiektuaren agiriak agerian geratuko dira, aztertzeko, bai helbide elektronikoan –www.euskadi.net/natura2000–, eta bai Udetxea Jauregian, Gernikan.

Interesdun guztiek aurkeztu ahal izango dituzte egoki deritzeten alegazioak, dekretu-proiektuaren edukiaren gainekoak, honako helbide honetan:

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Eusko Jaurlaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 22a.

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendaria,
GERMÁN ALONSO CAMPOS.